

**SOR
KUN
TZA**

BEKAK 2022

SORKUNTZA BEKAK 2022

MEMORIA

SORKUNTZA BEKAK

- 1- Julen Agirre Egibar
- 2- Jonathan Escapa Etxaniz
- 3- Sabrina Romero Marcos
- 4- Jone Arriola Lobete
- 5- Sara Madrazo Iturbe
- 6- Jon Barkin Agirre

SORKUNTZA EGONALDIAK

- 7- Katixa Goldarazena Azpirotz
- 8- Maria Oses Saiz eta
Eider Beobide Urkizar

Julen Agirre Egibar


Azpeitia, 1984

MALDA ETA BLOKE

Malda eta bloke, azken bi urte hauetan garatutako lan-prozesu bat da. Lan-prozesu hau, lanerako bi materialetatik eratzen dela esan daiteke. Batetik, eraikinen hezurduretan jarria dut arreta, eta nola kasu askotan hauek beste irakurketa bat egitea ahalbidetzen duten. Egitura hauek badutelarik halako izaera eskultoriko bat. Bestetik, eta honek txikitatik deitu izan dit arreta, ipar isurialdeko Euskal Herrian, eta batez ere Gipuzkoan, malda malkartsuetan eraikita dauden baserriek erakusten duten egitura interesatzen zait. Bi ideia hauen inguruan pibotatzen du momentu honetako nire lanak.

Guzti hau marrazkiaren diziplinatik lantzen dut, marrazkia izanik nire lan-esparrua egituratzen duen jarduna. Marrazketa oinarrizko diziplina bat dela kontsideratzen dut, hau da, marrazkiak lan-prozesu ezberdinak egituratzeko balio dezake, hasiera puntu bat ezarritik. Nire kasuan hasiera puntuaz gain, proiektuaren prozesua eta amaiera ere marrazkiak egituratzen ditu.

Malda eta bloke, lanerako material konkretu batzuk marrazkiaren esparrutik lantzen dituen lan-prozesua da.



Jonathan Escapa Etxaniz

Azkoitia, 1982

IZENIK EZ DUENA IZENDATZEKO OPERAZIO BAT

Nire praktika artistikoa sormen prozesuen zein teknika eta material ezberdinen inguruko ikerketan zein lanketan zentratzen da nagusiki.

Proiektu berri baten aurrean abiapuntu nagusiak aurretik erabakitako gai edo kontzeptu jakin batekin baino lan egin nahi dudana teknika zein material eta objektuekin harreman estuagoa izan ohi du. Nire gogoak eta interesa pizten duten materialak ikertzen eta pilatzen joatean, eskaintzen dizkidaten posibilitate edota mugak aztertu, azkenik, bai heuren artean zein ni eta beraien artean nolabaiteko elkarrizketa bat garatuz. Materialen bidez pentsatzea, alegia.

«Ondo egindako lerro batzuk, bukatutako lan bat aztertzen duen esku nagia, laztantzen duenak, geometria erraz batekin zoratzen daki. Langilea beharrean ikusten duen filosofoaren filosofiara darama. Estetikaren erreinuan, bukatutako lana ikusteak irudimen formalaren gailentasuna dakar naturalki. Aldiz, esku langileak erreala den horren berezko dinamogenia lanean ikasten du, aldi berean kontra egiten dion eta utzi egiten den haragi maitale eta errebeldearekin lanean. Obratzailearen esperientzia horretatik ulertzen du inkontziente sortzailearen psikologiak arintasunaren esperientzia, malgutasunarena». Gastón Bachelard



Sabrina Romero Ramos

Azkoitia, 1977


66 ZALDI

66 zaldi ene bihotzetik irteten. Hori da hasiera, ondorengo, marraztu, formatu jakin batean, zuri-beltzean, zaldiak. Ahaztu gabe, lan honen oinarria, animalia eta gizakiaren arteko mugak non ezartzen diren, non ezartzen ditugun, noraino doazen, nondik datozten... dela.

Nor garen eta zer zentzu duen marrazteak eta idazteak eta zertarako eta zergatik eta norentzat eta norengandik. Zer den edo ez den nobela grafiko bat, zentzurik ote duen egiteak, zergatik, zertarako, norentzat... hasieraren, prozesuaren, emaitzaren diametroak eta dimentsioak neurtzen. Neurtzen eta izaten eta ekiten eta egiten.

Eta eginaren ekinez, erabakiak hartuz egindako lanari leku bat egin eta bestea den horrengana gerturatu. Lanak hartu duen izaera propioaz jabetuz, harremanera eta estalita zegoena azalaraztera eramaten gaituenari bide eginez, bihotzetik atera diren zaldien trosta baimendu.

Hau ez da nobela grafiko bat, ez dakien baina izatea nahi duen liburua baizik. Mugakoa da eta mugan gauzatzen da bere izatea.



Jone Arriola Lobete

Elgoibar, 1998

DENA ASMATUTA DAGO

Dena Asmatuta Dago fikziozko film labur bat da. Gazteen barne munduan murgiltzea gustuko dut, gazteen ikuspuntutik gai ezberdinak inguratu eta azaleratzea. Film honetan komunikazioaren garrantzia azpimarratuko dut. Iritzi eta ikuspuntu kontrajarria duten bi gazteren elkarrizketan oinarrituz, gaur egungo bikote harremanen ikuspuntu berri bat emango digute protagonistek.

Arrosa koloreko bainugela zahar bat da istorioaren eszenatokia eta gure protagonistak Lur eta Martin dira, 24-25 urteko bi mutil gazte. Bainuontzi barruan dago bikotea, lasai, porro bat erretzen ari dira. Porroaren efektupean daudela, elementuen jatorriaz eta sorkuntzaz filosofatzen hasi da Martin. Dena asmatuta dagoela uste du, dena izendatuta dagoela eta zerbaitek izenik ez badu, asmatu egin behar zaiola bat. Ideia honi tiraka, bat batean, bikotea beraien arteko harremana zer den eztabaidatzen hasi dira. Duela sei hilabete ezagutu zuten elkar eta oraindik beraien erlazioak ez du izenik. Bikotearen iritzi kontrajarriak bainugelaren giroa hankaz gora jarriko du.



DENA ASMATUTA DAGO

DEŶA AŞMAŦUTA DAGO

JOAN SĂBIECĂ FILM 2014 16
KATOLİKESZŐRKE TÁRSASÁG



Sara Madrazo Iturbe

Azpeitia, 2000

EHUNAK

Artea, artisautza eta diseinuaren artean dagoen proiektu bat da Ehunak proiektua. Artearen munduan ikertzen diren kolorea, forma, testura, plastikotasuna...

Diseinuaren mundurekin bat ere egiten dute Ehunen Diseinuan. Diseinu grafikoan eta ilustrazioan erabilitako irudiaren trataerari erabilpen bat gehituz sortzen da emaitza, objektu forman (adibidez alfonbra) zein hurrengo batek erabili dezakeen material forman (adibidez oihala).

Etxekoa dugun euskal artileak duen goxotasunaz baliatuz nire zein beste jende askoren iruditegian dauden elementuekin jolasean ibili naiz sorkuntza prozesu honetan. Gai desberdinak jorratu arren, azkenean nire lanek elkarren artean badutela lotura bat ohartu naiz: oroitzapen desberdinak gogora ekartzen dizkidaten gure inguruko leku edo objektuak islatzen dituzte.




Jon Barkin Agirre

Azpeitia, 1993

KRISTON BURRUNDAIE

Musikak pixu handia dauka nire bizitzan. 15 urterekin gitarra ikasten hasi nintzen eta urte batzuk geroago talde batean sartzeko aukera eskaini zidaten baxua jotzen. Honi esker, euskal musikaren egungo panorama gertuagotik ikusteko eta bizitzeko aukera izan dut. Bizipen hauek direla eta, badakit zeinen zaila den talde batean egotea eta zure proiektua ezagutaraztea, gehienbat hastapenetan. Hau dela eta, podcast bat sortzeko ideia bururatu zitzaidan, bi helburu finkorekin.

Lehenengoa, Azpeitiko musikaren erakusleaho bat izatea, estilo ezberdinetako talde nahiz musikariak ditugulako herrian. Bigarrena, musikari hauei aurpegia jartzea eta beraien proiektuak ezagutarazteko aukera eskaintzea, gehienbat hasiberriei. Helburu hauek gauatzeko asmoarekin eta eskura ditudan nahiz eskaini dizkidaten baliabideekin, proiektua aurrera atera dut. Espero dut podcasta musikari hauen proiektuen onurarako izango dela eta herritarren interesa pizteko balioko duela.



SORKUNTZA EGONALDIAK

Katixa Goldarazena Azpirotz

Arruitz, 1992

MATERIAL BATETIK HASI

Deialdian elkarbanatutako bideo bilduma bat izan da abiapuntua. Bilduma honek filmetatik jasotako erreferentzia bisualak biltzen ditu, atentzioa jarritz gorputzen arteko harremanetan, eskalan, ikuslearen begiradaren distantzian, gorputzen adierazkotasunean, eskultura eta dantzaren arteko loturan, zuzeneko ekintzaren denboralitate iheskorrean, mugimendua eta emozionaltasunaren bidegurutzeetan, bideoaren denbora eta tentsio gaitasunean, espazioaren erabilera eta garrantzian, material hauen haragizko pultsuan...

Guzti honetatik abiatuta eta dinamoak eskaintzen dituen baliabideekin, marrazkian eta serigrafiara hurbiltzean gauzatu da gehienbat proiektua. Iruditik hasita beste irudietara itzuliz, hizkuntza aldaketa batean bezala eta itzulpen hauekin egindako muntaietan, forma zehatzetan, gorpuztu da.







Maria Osés Saiz

Arrasate, 2000

Eider Beobide Urkizar

Donostia, 2000

INTSUMISOENA


Gure proiektuaren ardatz nagusia literatura itzulia da. Ingeleseztik, frantseseztik eta gaztelaniaztik guretzat erreferente diren artisten lanak ekarri nahi izan ditugu gurerara; euskarara itzuli, eta ondoren zuzeneko emanaldi forma eman diegu. Horretarako, idatzitako testuak lantzeaz gain, ikus-entzunezko beste euskarri batzuetan ere jarri dugu arreta: pelikulak, serieak, bideoak, antzerkiak... Behar genuen edukia bildu ondoren, ahotsarekin jolastu nahi izan dugu zuzeneko emanaldiari forma emateko. Gainera, argazkigintzari ere bere lekua eman eta gure ikuskizunean txertatu dugu. Lanaren hari nagusia maitasuna izan da, eta gai horri tiraka josi ditugu testuak, ikus-entzunezko edukiak eta argazkiak. «Maitasun» kontzeptua berreraiki nahi izan dugu, beste batzuek idatzi eta esandakoaren piezak hartu eta geure puzzlea eraikiz.





-Azpeitia
Denontzat

Kulturaz
Azpeitiko Kultur Kooperatiba


DINAMOA
SORMEN GUNEA